

Bola-jokoan neurtuko dira Zeanuriko kofradiak Alzustan

Urri lehenengoaren 30ean, zapatuan, Alzustako bolatokian jokatu da Zeanuriko kofradien arteko bola txapelketea, San Migel jaien egitarauaren barruan. Udalerrria osatzen daben zazpi kofradietako ordezkariak izango dabe taldeka jokatzeko dan txapelketa horretan parte hartzeko aukerea: Alzuak, Alzustak, Asterriak, Ibarguenek, Ipiñaburu-Undurragak, Otzerinmendik eta Uribek.

Taldea 4 bolarik osatuko dabe, bolari bakotzak 6 jaurtiketa egingo dauz, eta taldekide guztiak botatako txirloen batuketea hartuko da kontuan; beraz, txirlo gehien botatzen dauan taldea izango da irabazlea eta bardinketa egongo balitz, *gerrea* jokatu litzateke.

Danel Beitiarentzat bakarkakoa

Aurtengo udan, bakarkako hiru txapelketa jokatu dira Zeanurin: Alzuan, San Juston eta San Lontzon —Ipiñan ez zan jokatu euria egin ebalako—, eta toki bakotxean sailkatu ziran lehenengo hiru bolariak hartu eben parte Zeanuriko bakarkako txapelketan, San Lontzo bigarren egunean. Irabazlea, Danel Beitaia 14 urteko mutikoa izan zan —igaz bigarren tokia eskuratu eban—, eta bigarren eta hirugarren tokietan Maximo Beitia eta Joseba Kortazar sailkatu ziran. Hiru bolari honeek kofradien txapelketan be parte hartuko dabe: Danel eta Maximo Beitia osaba-lobak Otzerimendigaz eta Joseba Kortazarrek Uribegaz.

Babeslea eta laguntzailea

Kofradien arteko txapelketa hau antolatzea ezinezkoa izango litzateke erakunde eta enpresa pribatuen laguntza barik, eta Zeanuriko Udalaren babesa eta Alzustan bertan dagoan Ellauri Hoteleko *Kiloterdi Txokoaren* babesa izango dau.

Sariak honako honeek izango dira: talde irabazleak 120 € eta kilo eta erdiko bi txuleta bere osagarriakaz bakaltzeko edo afaltzeko aukerea izango dau *Kiloterdi Txokoan*, Ellauri hotelaren jatetxean. 2. saria: 100 €koa izango da eta 3.a 80 €koa. Igaz Ipiñaburu-Undurragako taldeak jantzi eban txapela, baina aurten indartsu ei dator Otzerinmendi, bakarko txapelketako lehenengo bi sailkatuak, Danel eta Maximo Beitia osaba-lobak, talde horretako bolariak dira eta.

Txapelketea hasi aurretik, 16:30ean umeei be bolan jokatzeko eta kirol hau ezagutzeko aukerea eskainiko jake; horretarako, euren arteko lehiaketea antolatuko da.

Beraz *eskuzuloak, txorra, sinka, hirukoa, txakile, zubile, txirloa, arrapea...* eta beste berba batzuk entzuteko aukera izango Alzustako bolatokian urria lehenengoaren 30ean, arrastiko 17:00etatik aurrera.